



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/01/29

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi Madrilgo Udalagazko alkartasuna eskatzeko Arauz Besteko Proposamena, bertako kontuak interbenidu dirala eta

Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau gaur goizean, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, Foru erakundeak Madrilgo Udalagazko alkartasuna adierazo daian, Ogasun Ministerioak bertako kontuak interbenidu ostean. EH Bilduren zuzenketa eskea jaso dauen ekimenak Batzarretako gainerako taldeen kontrako eretxia jaso dau.

Proposamena aurkeztu dauen taldeak, joan dan urrian Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioak Madrilgo Udaleko kontuak interbenidu ostean aurkeztu dau proposamena “PP taldeak tokiko autonomiaren eta Udalen legitimidade demokratikoaren kontra zelan jarduten dauen argi eta garbi erakusten dauen adibidea”. Asun Merinero batzordekideak defendidu dauenez, Estaduko beste edozein udalerriren kontrako eraso bilakatu daike. Podemos Bizkaia taldearen Arauz Besteko Proposamenak zortzi puntu eukazan, eta EH Bilduk zuzenketa eskea aurkeztu dau. Joseba Gezuraga EH Bilduren ordezkariak proposamen “zehatzagoa” defendidu dau, Aurrekontuen Egonkortasunerako eta Finantzen Iraunkortasunerako Lege Organikoa indar barik iztea eskatuz. Zuzenketa-eske horretan, Madrilgo Udalagazko alkartasuna gainerako udalerrri guztietara zabaltzen zan, euren aurrekontuetan finantzen superabita erakusten daben udaletara, batez be.

Aldundiko gobernua babesten daben taldeen aldetik, Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak bere kontrako eretxia azaldu dau, bere esanetan “lupea ez dalako alkartasun eskari batean jarri behar, aztertu egin behar dan eta zuzena ez dan gastuen gaineko arau batean, baino”. Jesús Lekerikabeaskoa Euzko Abertzaleak taldearen ordezkariak, Madrilgo Udalari jagokon egoera jakin baten gainean bere eretxia ez emotea gurago izan dau, “gure ardurea Bizkaiko udalak diralako, eta guk geure etxeko lanak egin genduzalako eta bereizten gaituen Foru Araua daukagulako”. Javier Ruiz Talde Popularreko kideak adierazo dauenez, “administrazio publiko guztiek goragoko mailako instantzia baten tutoretzapean dagoz, baita Gobernu Zentrala be”, eta Madrilgo Gobernuak martxan jarri dauen aurrekontuen egonkortasunerako politiketa goraiatu dau. Talde Mistoko Arturo Aldecoak hainbat gauza eskatu ditu: “zuhurtasuna, akordioak bilatzea eta onartzen dan guztia serioa eta iraunkorra izatea”.

AGERRALDI ESKARIA

Beste alde batetik, Batzarretako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak Asier Larrucea Galdameseko alkate ohiaren agerraldi eskaria egitea onetsi dau. Ekimena Javier Ruiz Talde Popularreko kideak egin dau, alkate ohiak, bazkarien truke Aldundiaren obrak jasotearen inguruan egin ebazan adierazpenen gaineko interesa erakutsiz. Bere abstentzinoaren bitartez, Euzko Abertzaleak taldeak agerraldia eskatzea erraztu dau, baina esan dau Larrucea daborduko ez dala kargu hautetsia eta bere azalpenak, alkate izan zan udalerriko Udalbatzan emon beharko leukezala. Gainerako taldeak ados agertu dira Asier Larrucea Batzar Nagusien aurrera etorteko eskaria egiteagaz.

LH-KO PRAKTIKAK ALDUNDIAN EGITEKO AUKEREA

Goizeko saioa, Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatu andrearen agerraldiagaz amaitu da. Eskaria Zigor Isuskiza EH Bildu taldeko batzordekideak egin dau, Lanbide Heziketako ikasleen praktikak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko aukerearen gainean itaunduz. Bengoetxeak adierazo dauenez, Foru Aldundiak aspalditik ditu hitzarmenak sinatuta LHko ikastetxeakaz, ikasleen prestakuntza akademikoa eta laneratzea hobetzeko. Dana dala, adierazo dauenez, batzuetan ez dira beteten eskinitako plaza guztiak.

NOTA DE PRENSA

29/01/18

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan una Proposición No de Norma en solidaridad con el Ayuntamiento de Madrid por la intervención de sus cuentas

El grupo juntero Podemos Bizkaia ha presentado esta mañana, en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, una Proposición No de Norma para mostrar solidaridad con el Ayuntamiento de Madrid tras la intervención de sus cuentas por parte del Ministerio de Hacienda. La iniciativa, enmendada por EH Bildu, ha sido rechazada por el resto de grupos junteros.

El grupo proponente ha presentado esta propuesta después de que el Ministerio de Economía y Hacienda interviniese en octubre pasado las cuentas del Ayuntamiento de Madrid, “un ejemplo de cómo el PP actúa contra la autonomía local y la legitimidad democrática de los ayuntamientos”, y que puede suponer por extensión un ataque contra cualquier otro municipio del Estado, según ha defendido la juntera Asun Merinero. La Proposición No de Norma de Podemos Bizkaia constaba de un total de ocho puntos, que han sido enmendados por EH Bildu. El representante de EH Bildu, Joseba Gezuraga, ha defendido una propuesta “más concreta”, que instaba a derogar la Ley Orgánica de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, y en la que la solidaridad con el Ayuntamiento de Madrid se hacía extensiva al resto de municipios, especialmente a aquellos que cuentan superávit financiero en sus presupuestos.

Por parte de los grupos que apoyan al gobierno de la Diputación, el portavoz de Socialistas Vascos, Ekain Rico, ha explicado su discrepancia con la propuesta porque a su juicio “la lupa no hay que ponerla en una petición de solidaridad, sino en una regla de gasto injusta que hay que revisar”. El representante de Nacionalistas Vascos, Jesús Lekerikabeaskoa, ha preferido no pronunciarse sobre la situación concreta del Ayuntamiento de Madrid “porque nuestra preocupación son los ayuntamientos de Bizkaia, y porque nosotros hicimos los deberes y tenemos una Norma Foral que nos diferencia”. Por parte del Grupo Popular, Javier Ruiz ha señalado que “todas las administraciones públicas están sujetas a la tutela de una instancia superior, incluido el Gobierno central”, al tiempo que ha alabado la política de estabilidad presupuestaria puesta en marcha por el Gobierno de Madrid. Arturo Aldecoa, en representación del Grupo Mixto, ha solicitado “prudencia, buscar acuerdos, y que lo que se apruebe sea serio y duradero”.

SOLICITUD DE COMPARECENCIA

Por otra parte, la Comisión Institucional de las Juntas ha aprobado formular una solicitud de comparecencia al ex alcalde de Galdames, Asier Larrucea. La iniciativa ha corrido a cargo de Javier Ruiz, de Grupo Popular, que se ha interesado por las afirmaciones del ex edil en torno a la

concesión de obras, por parte de la Diputación, a cambio de comidas. El grupo Nacionalistas Vascos ha facilitado con su abstención que se solicite esta comparecencia, matizando que Larrucea ha dejado de ser un cargo electo y que sus explicaciones deberían darse, preferentemente, en el Pleno del Ayuntamiento del que fue alcalde. El resto de los grupos han mostrado su acuerdo en solicitar la presencia de Asier Larrucea ante las Juntas Generales.

POSIBILIDAD DE REALIZAR PRÁCTICAS DE FP EN LA DIPUTACIÓN

La sesión de esta mañana se ha completado con una comparecencia de la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, a solicitud del juntero de EH Bildu, Zigor Isuskiza, que había preguntado sobre la posibilidad de que el alumnado de Formación Profesional pueda realizar prácticas en la Diputación Foral de Bizkaia. Bengoetxea ha afirmado que el ente foral dispone desde hace años de convenios firmados con centros de FP al objeto de mejorar la formación académica y la inserción laboral del alumnado, si bien ha añadido que en ocasiones no se cubren las plazas ofertadas.